Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Ramon Larrea Bilbao

Basauri, Bizkaia (1910)

Aurkibidea

Biografia

1910. urte inguruan Arizen jaio zen. Bere ama Zeberiokoa zen eta aita Arizeko torrekoa. Umetan Zeberiora joan zen eta 10 urte bete arte han bizi izan zen. Beste 6 urte Ugaon eman zituen eta gero Basaurira joan zen. Zeberioko euskara egiten zuen gehienbat.

Zintak

BSR-032

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1990-07-01
- **Iraupena**: 44 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gisasola, Jaione
- **Emalea**: Arretxe, Jon

Pasarteak

1. Zeberiotik Basaurira

- **Erref**: BSR-032/004
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:02:45. **Bukatu**: 00:05:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ama Zeberiokoa zuen. 10 urte bete arte amonarekin bizi izan zen Zeberion, ondoren Ugaon bizi izan zen 6 urtez eta gero Basaurira joan zen. Elkarrizketa garaian ilobekin egiten zuen euskara gehien. Semeak bazekien euskaraz baina alabak ez.

2. Batzokiko presidente

- **Erref**: BSR-032/006
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:17:19
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:
Jose Ramon batzokiko presidentea izan zen. Gerra aurretik, 1930ean, sortu zen batzokia Basaurin. Sari bat eman zioten 1988an, egindako lan guztiagatik. Dokumentua etxean gordetzen zuen.

3. Gerra garaian kartzelan

- **Erref**: BSR-032/007
- **Iraupena**: 0:06:36. **Hasi**: 00:17:19. **Bukatu**: 00:23:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:
Jose Ramon Larrinagako kartzelan egon zen zazpi aldiz. Jarrera ona izatearren ez zuen denbora asko igarotzen kartzelan. Basauriko kartzelan jipoi bat eman ziotenekoa kontatzen du. Militarrentzat mekaniko lanetan ibili izan zen, koronelaren automobila konpontzen ibiltzen zen. Tenienteak kotxea ipintzen zion Espainiako herri desberdinetatik Basaurira deklaratzera joateko.

4. Zeberioko euskara

- **Erref**: BSR-032/009
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:23:54. **Bukatu**: 00:24:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Zeberioko euskara hitz egiten zuen Jose Ramonek. Gipuzkoako euskararekin desberdintasuna ikusten zuen, bere inguruan antzeko euskara omen zen. Dimako txikiteoko lagunekin hitz egiten zuen euskaraz.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-20

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com